


Aldiritik (kaixo, mundua)



Euskal literaturak sarri erakutsi digu baserriaren eta kalearen arteko aldea, landako eta hiriko munduen arteko kontrastea. Azken hamarkadotan, berriz, lausotzen eta desagertzen ari zaigu dikotomia hori. Landagunea hirigunearen antza hartzen ari da, eta alderantziz. Aldiri izeneko espazio mota zehaztugabe eta mugagabean bizi gara jada. Aldiritarrak garenez, hortaz, aldirikoak helaraziko dizkizugu, irakurle, hiru hilabeteen behin, ondo bidean.

Arkitekturaren kritika zein didaktika lantzeko asmoa du Aldirik. Arkitektura bere osotasunean izango du xede, diseinuaren eskala txikiik hirigintza eta lurralde-antolakuntzaren eskala handira, kidekoak diren bestelako jakintza-arloak baztertu gabe, hala nola geografia, ekologia, soziologia edota artea. Arreta berezia emango diegu tokiko edukiei, baita arkitekto euskaldunek ekoizitako lanei ere.

Arkitektura eta abarrak gure hizkuntzan aztertzeko asmoarekin abian da Aldiri; politikoki zuzena ei den elebitasuna hainbeste defendatzen den garaiotan, euskara hutsean idatzitako aldizkaria, Udako Euskal Unibertsitatearen babes eta bermearekin. Umiltasunez, baina konplexurik gabe, arkitekturaz euskaldunok ere zeresana daukagulakoan gaude. Iruzkina, kritikak edota iradokizunak zinez eskertuko ditugu; horretarako duzu gure bloga, www.unibertsitatea.net/blogak/aldiri, baita arkitekturarekin erlazionaturako bestelako berri eta artikulua irakurtzeko ere.

Hasapenak ilusionagarriak bezain zalantzarriak izan ohi dira. Hasi berri den Aldiri aldizkariaren lehen zenbaki honek, jakina, hasiberriak ditu hizpide. Tituludun zein titulugabe, berrogei urte bete bitartean omen gara gazte arkitektook. Esperientziara doan bide bihurriaren lekukoizak eman nahi ditugu esku artean duzun elkarrizketa, erreportaje, kronika, komiki eta analisisen bilduma den agerkari monografiko honetan.

Aldiritik idazten dizugu. Erantzun egiguzu.